

txintxarri



Gabonetan ere, lagunartean kirola

Gabonetako areto futboleko topaketak giro onean eta lagunartean amaitu dira / 8-9

TXINTXARRI

Txikienak ere Jalgunera

6tik 12 urtera bitarteko haurrak ere hartuko ditu Jalgunek urtarilla amaieratik aurrera / 4

Film eskaintza zabala izango da Manuel Lekuona kultur etxean, urtarrileko kultur agendan / 3

Hirugarren mailako txapeldun dira Intza kirol elkarteko Urkia eta Solano, Alegiako finala irabazita / 12

30+
urtez
zuekin

BERRIA!
HABEren titulu
ofizialak euskaltegian
bertan lortzeko
aukera

2018 EUSKARA IKASTAROAK
MARTXAN DAUDEN TALDEETAN SARTZEKO AUKERA ETA BAITA HASIERAKO TALDEA ERE
MATRIKULALDIA: Urtarrilaren 8tik 22ra
DIRU-LAGUNTZAK: %85 eta LANGABEENTZAT DOHAINIK!

IKASTAROAK:

- AURREZ AURREKOAK: Maila guztiak astelehenetik ostegunera. Txandaka ibiltzeko aukera.
- ON LINE

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren maila guztiak.
- Titulu homologoak: OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZANTZAn balio dutenak.

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara ikasleak

LASARTE-ORIA
UDAL EUSKALTEGIA

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura). BULEGO ORDUTEGIA: 09:30-19:00



Biyak Bat egoitzako hainbat kide bertaratu ziren astearteko udalbatzarrera. TXINTXARRI

Biyak Bateko hezetasun arazoak, udalbatzarrean

Biyak Bat zaharren egoitzako terrazako hezetasun arazoei aurre hartzeko erabakia hartu du Lasarte-Oriako udal gobernu taldeak. Urte luzeetako arazoa da elkarte jasaten ari dena, baina ez du irtenbide errazik. Aurrekontuen diru sorta onartu dute obrak aurten lizitatzeko

Maddi Noriega

Hilabeteko bigarren asteartean bildu ohi dira udal gobernu taldeak udalbatzarrean. Urte berriaren hasierarekin ere horrela egin dute: asteartean egin zen ohiko udalbatzarra. 18:30ean eman zioten hasiera. PSE eta PP alderdiek elkarrekin sinatutako mozioa zen gai ordenean aurreikusitako puntu bakarra, Biyak Bat jubilatuen etxeko hezetasun arazoan ingurukoa, baina eztabaidarako nahikoa eman zuen gaiak.

Alderdi Popularreko zinegotzi Alejandro Saenzek ekarri du gaia mahai gainera. Biyak Bat elkarteke terrazak hezetasun arazoak dituela, eta horiekin amaitzeko behin betiko irtenbide bat bilatu behar dela argudiatu du. PSEk bat egin

du PPrekin, eta elkarrekin mozio trantsazional bat ekarri dute udalbatzarrera.

Bertan, bi alderdiek eskatu dute 2018ko udal aurrekontuetan diru sorta bat, egoitzako arazoa konpontzeko. Bestalde, konponketen lizitazioa ere urte honetan gauzatzearen alde agertu dira.

Mozioak eztabaida luzea ekarri du, baina aldeko hamabi botorekin (PP, PSE, EAJ eta ADLOP) aurrera egin du. EH Bilduk abstentzioaren alde

URTEAK DIRA BIYAK BAT EGOITZAN FILTRAZIOEN ONDORIOZ HEZETASUN ARAZOAK DAUDELA

egin du. Egoitzako arazoa konpondu behar dela ados dago alderdia, baina momentu honetan hori argitara ateratzea "protagonismo politikoa" dela argudiatu dute.

Galdera eta erreguak

Behin batzarreko mozioa onartu eta alderdi bakoitzak boto azalpenak emanda, galdera eta erreguak egiteko tarte zabaldu da. Alderdi ia guztiek egin dizkiote galderak Jesus Zaballos alkateari. Aurtengo udal aurrekontuen ziborroaz, herriko kaleetako argiteriaz, futbol zelaiaz, lurpeko zaborrontziez eta elkarteek lokalen inguruan egindako eskaerez galdetu diote udal zinegotziek PSE-EEko alkateari.

91 umeren eskola materiala erosten lagundu du udalak

60 familiek jaso dute Lasarte-Oriako Udalak eskola materiala erosteko urtero ematen duen diru laguntza

Txintxarri

Udalak herritarren eskura jartzen duen programaren onuradun diren familien kopuruak %81 egin du gora. 1.745 euro gehiago zuzendu ditu aurten udalak programa horretara, iaz baino %63 gehiago.

40.000 eurotik beherako diru sarrerak dituzten familiei zuzenduta dago laguntza, eta hauek dira helburuak: eskola adineko haurrak dituzten familiei laguntzea, eta

erosketa herriko dendatan egitera bultzatzea.

Hiru diru kopuru jaso dituzte onuradunek: 20.000 eurotik beherako diru sarrerak dituztenek, 75 euro jaso dituzte; 20.000 eta 30.000 euro arteko diru sarrerak dituztenek, 50 euro jaso dituzte; eta 30.000 eta 40.000 euro bitarteko diru sarrerak dituztenek, berriz, 25 euro.

Diru laguntza derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzako haur eta senideei zuzendu zaie.



TXINTXARRI

Saharara bidaltzeko materiala

Lasarte-Oriako Udalak, *Oporrak Bakean* programan parte hartzen duten familiekin eta beste boluntarioekin batera, beste urte batez abixikiko da Sahararen Aldeko Euskal Karabanari. Horrela, hurrengo asteetan materiala bilduko dute, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpalekura bidaltzeko.

Dendatan elikagaiak bilduko dituzte: arroza, pasta, azukrea, lekalea, atuna eta sardinak. Material higienikoa ere eskatu dute, konpresak, esaterako. Herriko ikastetxeetan kutxa bat ipiniko dute, eta Emakumeen Zentroan beste bat.

Udalak hobekuntzak egin ditu kiroldegian eta Loidibarrenen

Guztira 34.399 euroko inbertsioa egin du Lasarte-Oriako Udalak herriko bi instalazioetan

Txintxarri

Maialen Chorrut kiroldegian hobekuntzak egin ditu udalak. Tarte Kooperatiba Elkartearekin kontratatu dute, galdara gelako galdara txikia ordezkatzeko. 17.372 euro gastatuko dituzte horretan. Horrez gain, Pavitec 2000 etxea kontratatu dute, aldagela egokituaren zoruaren gehiegizko inklinazioa zuzentzeko (5.358 euro). Telebista zirkuitu itxiko

kamera ere ordezkatu dute, Satrustegi Sonidoren bidez (3.441). Azkenik, kiroldegiko guneetan sortzen den kondentsazioarekin amaitu asmoz, Arkasuso Systems enpresari enkargatu diote aire gortina bat instalatzea (3.430 euro).

Bestetik, sarea jarriko dute Loidibarrenen, atzealdean eta trinketearen eskuinaldean. 4.798 euroko aurrekontua dute sarea instalatzeko lanek.

Gazteri sailak ikastaro puntualak eskainiko ditu

Kultura eta Gazteria sailak lehen hiruhilekoan antolatuko dituen ikastaroak ezagutzera eman dituzte. Honez gain, urtarrileko kultura agenda aurkeztu da eta eskaintzen artean, zinea da nagusi. *Izar*, Marie de Jongh antzerki taldearen azken lana ere ikusi ahalko da

Txintxarri

Hiruhileko honetan Lasarte-Oriako heldu zein gazteek hainbat gaitan sakontzeko aukera izango dute, Manuel Lekuona kultur etxean eta Gaztelekuan eskainiko dituzten ikastaroerik esker.

Manuel Lekuonan helduei zuzendutako lau ikastaro eskainiko dituzte urtarrila eta martxo bitartean: *Erromanikoa Donejakue bidean*, *Nutrizioa*, *Hobeto bizitzeko teknikak* eta *Marrazketa*.

Urte osoko ikastaro bat ere izango da: egur taila. Ikastaro hori otsailaren 5ean hasi eta azaroan amaituko da. Izen emateak urtarrilaren 8tik eta 19ra arte egingo dira Manuel Lekuonan.

Formatoa moldatu

Berrikuntzarik aipagarriena, gazteria sailean dago. Txus Alonso zinegotziak adierazi duenez, hiruhileko ikastaroetara ez zuen ia gazterik izena ematen. "Horregatik formatuak eraldaketa behar zuela ikusi dugu, eta ikastaro puntualak eta doakoak egingo dira".

Hiruhileko honetan, beraz, Inauterietarako makillaje eta karakterizazio ikastaroa eskainiko dute. Hori 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendua dago, eta bi saio izango ditu; bata urtarrilaren 26an, eta bestea otsailaren 2an, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Udal ordezkariak jakitera eman dutenez, makillajeaz aparte, beste materialekin lan egingo da; latesa edo odol artifiziala, esate baterako.

Parte hartzeko izena eman behar da. Inskripzioa Gaztelekuan egingo da, urtarrilaren 15a eta 25a bitartean.

Horrez gain, gogora ekarri dute eskola laguntza zerbitzua ostegunetan 17:30etik 19:30era martxan dagoela.



Udal ordezkariak hiruhileko honetako ikastaroen aurkezpena. TXINTXARRI

Ikastaroerik buruzko informazio gehiago Manuel Lekuona kultur etxean, Gaztelekuan edo udalaren web gunean dago eskuragarri.

Kultura agenda

Bestalde, urtarrileko asteburuetan ez da aspertzeko aukerarik izango. Manuel Lekuonako kultura egitaraua film emanaldiez beteta dator.

Arrakasta handiko pelikula ikusteko aukera izango da. Horregatik, esate baterako, urtarrilaren 21an, *Star Wars: los últimos Jedi* filmaren bi saio izango dira, bata haurrentzat eta bestea helduentzat.

Era berean, Lasarte-Oriako haur eta gazteek urtarrilaren 14an *Ferdinand* animaziozko filma ikusi ahalko dute, eta 28an *El pequeño vampiro*.

Helduentzako zinemari dagokionez, urtarrilaren 14an *Asesinato en el Orient Express*, eta hilaren 28an *Perfectos desconocidos* eskainiko dituzte.

Okendo zinema taldeak sustatzen duen forumean *Mother* filma emango dute gaur, urtarrilaren 12an. Hilaren 26an, berriz, *Wonder Wheel*.

Antzerkiak ere izango du lekua kultura agendan. Marie de Jongh antzerki taldeak *Izar* antzezlan taularatuko du. Lana abendua amaieran aurkeztu zuten Bilbon, eta urtarrilaren 27an izango da Lasarte-Orian.

Sarreraren prezioa

Udaleko arduradunek jakitera eman dutenez, aurrez ez da sarreraren prezioetan aldaketarik izango.

Honela, haurren emanaldietako sarrerak 3,80 euro balioko du; hamar sarrerako bonoak, 28; eta 3D saioek, 4,80 euro. Helduen kasuan, sarrera bakoitzak 5,50 balioko du; bonoak, berriz 45 euro; eta 3D saioak, 6,50 euro.

Liburutegiko ordutegia

Azkenik, hilabete honetatik aurrera indarrean egongo den liburutegiko ordutegia iragarri dute. Astelehene ostiralera, 9:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da irekia. Larunbatetan, berriz, 9:30etik 13:00etara. Ordutegia gaur egungo eskarietara egokitua dagoela azpimarratu dute, eta erabileraren arabera egokituko dutela.

NEURE KABUZ



ASIER ODRIOZOLA

Aldapa

Elurra zuria eta Kontxa alderaezina. Epiteoak dira horiek: elurra zuria ez bada, nolakoa? Kontxara begira jarri eta hori konpara ezina ez bada, zer da bada? Modu bertsuan gertatzen zaio urtarrilari, aldapatsua dela esaten dugunean. *Urtarrila* hitzak alboan darama beti *aldapa* hitza. Igotzen dena jaitsi egiten omen da eta eguberriko egunetan goitik ibili ohi gara oso, goitik otorduetan, olatu gainean lagun arteko poteoan eta gailurrean dirua xahutzen. Artalde bihurtzen gara urteko zenbait sasoi: eguberrietan, merkealdietan, udarako oporbidaietan eta abarretan, eta artaldeak "egokitzen" dena egiten du artaldeko kide sentitzeko, bakarkako aldapatan ez ibiltzeko (aldapa berriz ere).

Bada, zeruetan dabilenak lar artean amaitzen duen bezala, Gabonetan sueto sueto ibiltzen denak urtarrila du beti zain. Hor hartzen dute indar urte berrirako asmo eta aginduek: kirola egingo dut, erretzeari utziko diot, ingelesera ikasteari helduko diot berriz ere eta batez ere, zaindu egingo dut neure burua eta albo batera utziko ditut jan-edan gustuko baina kaltegarriak. Horrek esan nahi du nork bere burua behartzen duela horietara eta badakigu zer gertatzen den "obligatizat" hartzen ditugun jarduerekin: aldapa gorakoak egiten zaizkigula. Ez egin zuten zeuen burua: urtarrileko aldaparena ez da horrenbeste diru kontuagatik, geuk gozamenari ezartzen dizkiogun mugengatik baizik. Animo eta eutsi!

Kabiak kudeatuko du aurrerantzean Atsobakar zahar etxea

Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakar zahar etxea kudeatzeko hitzarmena sinatu dute.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek hitzarmen dokumentuari oniritzia emanda, akordioa sinatu eta aurrerantzean, Kabiak kudeatuko du Lasarte-Oriako Atsobakar egoitza. Udalak jakinarazi du aspaldiko eskaera bati erantzuna ematen diola hitzarmenak.

Ituna urte bukaeran sinatu badute ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak

2017ko uztailez geroztik emandako zerbitzuen kostu osoa bere gain hartu du.

Hitzarmen honekin "pozik" agertu da Jesus Zaballos alkatea: "Azkenean zahar etxearen eskualdaketa egin da, eta horrek baliabide ekonomikoak eta pertsonalak liberatuko dizkio udalari, berez dagozkion eskumenetara zuzendu ahal izateko".

Alkateak gaineratu du egoitzaren plaza kopurua handitu egingo dela etorkizunean, izan ere, zahar etxea handitzeko obrak egitea aurreikusitako udalak.



NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA MAIATZEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Udal ordezkariak eta Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria, hitzarmena sinatzen. TXINTXARRI

Euskara eta kultura sustatzeko apustua

Diruz lagunduko du Lasarte-Oriako Udalak Ttakun Kultur Elkartea. Bi hitzarmen sinatu dituzte: bata euskararen erabilera sustatzeko programei zuzendua, eta bestea, kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeko.

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak, Jesus Zaballos alkatearen bidez, Ttakun Kultur Elkartearekin bi hitzarmen sinatu ditu. Guztira, 170.572 euro jasoko ditu elkarteak 2017. urtean zehar aurrera eramandako ekintzen truke.

Alde batetik, euskararen erabilera sustatzeko programei dagokien hitzarmena sinatu dute. Horrela, 154.045 euro jasoko ditu kultur elkarteak, 2017. urtean aurkeztutako egitasmoak laguntzeko. Diru kopuru horrekin

lagunduko dituzte *Gazte Kluba*, *Amaraun Kluba*, *Kuadrillategi*, *Gurasoleku*, *Solaskide-solasbide*, *Kulturgingtza euskararen eskutik* eta TXINTXARRI aldizkaria.

Hitzarmenaren bigarren zatia, berriz, hiru urterako sinatu dute Gazteria eta Jaiak Sailarekin. Akordio honen bitartez, Ttakunen hainbat jaialdi eta kultura ekitaldi lagunduko ditu udalak, hala nola, Euskal Inauteriak, Azkorte azoka, Sorgin Dantza, Santa Anako parodia, San Tomas azoka eta Olentzero. Horrela,

16.257 euro jasoko ditu Ttakunek 2017. urterako; 17.284 euro 2018rako; eta 17.524, berriz, 2019rako.

Jesus Zaballos alkateak adierazi du "pozzgarria" dela elkartearekin akordioa sinatzea. "Ttakun Kultur Elkarteak egiten duen lanaren aldeko apustua egiten dugu".

Tomas Arrizabalaga Ttakun Kultur Elkarteako lehendakariak, berriz, eskerrak eman dizkio udalari emandako babes eta laguntzagatik.



TXINTXARRI

Urteari agur, Buruntzatik

2012an antolatu zuten lehenengoz mendi irteera, eta tradizio bilakatu da honezkeru. Ttakun KE eta Ostadar SKTk antolatutako erromeria eta hamaiketakora gerturatu ziren lasarteoritar ugari abenduaren 31n. San Roke basiliza txiki geratu zen eguerdi partean: txistorra pintxoak, salda edota ardoa eskatzeko ilarak sortu ziren. Antolatzaileen hitzetan, eramandako guztia jan eta edan zen.



TXINTXARRI

Ametsak egia bihurtzeko garaia

Presoen Lagunak herriko taldeak antolatuta, zortzigarrenez, errezitaldi hunkigarri batez gozatu dute lasarteoritarrek. Denbora izan da aurtengo emanaldiko gaia. Aitzol Iriondo, Mikel Antza, Javi Gallaga, Ibon Fernandez Iradi, Itziar Moreno eta Pello Eskisabel presoen poesiak, gogoetak edo mikrokontakizunak entzun dira. Xumela Abesbatza, txalapartari edo Kukuka Antzerki eta dantza eskolako kideen emanaldiak ere izan dira. Pello Eskisabel preso ohiarentzat "berezia" izan da aurtengoa, zuzen-zuzenean bizitu baitu, aurrenekoz.

Jalgunek Txikikluba sortuko du

Jalgune elkarteak rol garrantzitsua betetzen du Lasarte-Orian, aisiako ekitaldiak eskaintzen ditu eta aniztasun funtzionala duten pertsonen urte bukaeran antolatzen duen jaialdiaren arrakastak erakusten du behar-beharrezko zeregina betetzen duela elkarteak. Bada, 2018. urtetik aurrera hazi egingo da elkarteak; 6tik 12 urtera bitarteko haurrak ere hartuko

ditu, Txikikluba atala sortuta. Udalaren laguntza izango du horretarako. 2017an 36.000 euro inguru jaso zituen, baina 2018. eta 2019. urteetan 50.850 euro inguruko laguntza izango du urtero.

Jesus Zaballos alkateak Jalguneren lana goraiatu du. "Lan bikaina betetzen dute. Askotan pentsatzen dugu inklusioa soilik irisgarritasuna dela, herriko kaleak


eta plazak denontzako egokitzea, baina askoz ere gehiago da. Asia eskaintzea ere bada, adibidez".

Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak azaldu duenez, gurasoen eskakizun bati ari dira erantzuten. "Beste herrietara eramaten zituzten haurrak".

Jalgunek bilera bat antolatuko du gurasoekin, Txikikluba martxan jartzeko. Gabonetako oporraldia igarota hamabost eguneko epean zabalduko da klubean izena emateko aukera.



TXINTXARRI



Ekimena abenduaren amaieran aurkeztu zuten Miramonen, Donostian. TXINTXARRI

'Hitzartu' aurkeztuko dute Lasarte-Orian

Asteazkenean, hilaren 17an, Manuel Lekuona kultur etxean aurkeztuko dute hondakinen kudeaketan herritarrek parte hartzeko ekimena. Diru bilketa kanpaina ere hasi dute: www.itsulapikoa.eus webgunean egin daitezke ekarpenak

Txintxarri

Hondakinen gatazkak Gipuzkoako gizartea astindu du, baina konponbidea aurkitzeko orain arte apenas sortu da eztabaida gunerik. Zaborren bilketaren politikak alderdi politikoek adostu dituzte, askotan gizartearen kezka kontutan hartu gabe. Arazoa errotik konpondu nahi du Hitzartu prozesuak. Gizarte zibilak parte hartze prozesu bat bultzatu nahi du, 2017-2030 urteetarako hondakinen plan integral bat adosteko. "Prozesu hau esperimendu bat da, aukera berri bat Gipuzkoako gizartearentzat", adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek. Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean aurkezpena egingo dute datorren asteazkenean, 19:00etan. Prozesua bultzatzeko crowdfunding kanpaina bat hasi dute; www.itsulapikoa.eus webgunean egin daitezke ekarpenak.

Prozesuak urtebete iraungo du, eta hiru fase nagusi izango ditu. 2018ko lehen seihilekoan herritar eta eragileek hartuko dute hitza. Ahalik eta parte hartze zabalena sustatu nahi dute bultzatzaileek, gizartearen ordezkapen ahalik eta zabalena izateko. Mahai tekniko batek eta mahai sozial batek herritarren proposamenak bideratuko dituzte, etorkizuneko eszenatokiak bideratzeko.

Mahai soziala eta teknikoa

Mahai soziala herritar eta eragileek osatuko dute, eta haiek ekarpenak egingo dituzte. Mahai teknikoa adituez osatuta egongo da (juristak, politologoak, ekonomistak, irakasleak, osasun


HONDAKINEN PLAN INTEGRALA EGITEKO HERRITARREN IRITZIAK JASOKO DITUZTE

eremuko profesionalak...), eta herritarren ekarpenekin erredaktatuko du plana ondoren. Abendurako nahi dute proiektua idatzi. Azkeneko fasean lana aurkeztu, aztertu, baloratu eta oniritzia emango diote.

Prozesuak ondorengo helburuak ditu: batetik, gizarte kohesio handiagoa lortzea. Bestetik, ingurumena eta osasuna gehiago babestea. Eta azkenik, Europako Batasuneko arauak eta politikak zorrotzago betetzea.

EHUk diseinatuta

Euskal Herriko Unibertsitateak diseinatu du prozesua, eta ondoko pertsonak osatzen dute berme batzordea: Pedro Ibarra EHUko katedradunak, Ernesto Ganuza CSICko zientzialaria, Juanjo Alvarez EHUko katedraduna, Garbiñe Biurrun magistratua eta Bernardo Atxaga idazleak. Pertsona horiek prozesua ikuskatu eta monitorizatu egingo dute.



Alkatea, notarioa eta eraikitzaileak, zozketaren unean, kultur etxean. TXINTXARRI

Babes ofizialeko 70 etxebizitza berri zozketatu dituzte

Zabaleta Berriko 46 etxebizitza eta Zataraingo 24 etxebizitza dira. Itxaron zerrendak ere zehaztu dituzte

Txintxarri

Zabaleta Berriko eta Zataraingo urbanizazioan guztira 70 babes ofizialeko etxebizitza egingo dituzte, eta horiek zozketatu dituzte aste honetan. Zabaleta Berrin 46 izango dira babes ofizialekoak. 299 zenbakitik 304ra eta 1etik 40ra zuten pertsonen egokitu zaie etxebizitza. Zatarainen 23 etxebizitza zozketatuta dira, horietako bat egokitua zegoelako, eta zuzenean adjudikatu da, baldintzak betetzen zituen eskatzaile bakarra zegoelako. Zatarainen kasuan, 149 zenbakitik 171ra duten

pertsonei egokitu zaie etxebizitza. 2019rako urbanizazioa eraikita egongo dela aurreikusi dute. Etxe eraikitzaileen webguneetan ikus daiteke irabazleen zerrenda.

Construcciones Aburuza eta Promociones Arroka 2017ko enpresetako ordezkariak, Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea eta udaleko notarioa izan dira zozketan. Ordenagailuaren bitartez egin dute zozketa. Zabaleta Berriko hamalau etxebizitza alokairuan jarriko ditu udalak, "merkatuko prezioa baino baxuago", alkatearen hitzetan.



TXINTXARRI

Argiteria berrituko du udalak

Inbertsio handia egingo du Lasarte-Oriako Udalak herriko argiteria berritzen eta puntu ilunak argizatzen. 1.850.000 euroko inbertsioa egingo dutela jakinarazi du Jesus Zaballos alkateak. Horrela, energia aurreztuko du udalak, eta ekonomikoki ere bideragarriagoa izango dela iragarri du. Bi fase izango ditu planak: herriko zenbait zonetan 2018. urtean jarriko dira argi berriak, eta gainerakoetan, berri, 2019an.

Diru kopuru osotik, 96.000 euro Setalde enpresari eman dizkio udalak Ola kaleko errotondatik Zumaburuko elizarrainoko argiteria hornitzeko, eta aurtengo gainerako lanetarako enpresa aukeratzeko lizitazio prozesua jarriko da martxan.

Harrera beroa Errege Magoei

Eguraldi txarra egin arren, ez zuten hutsik egin



Biyak Bat adinekoen egoitzan egin dute aurreneko geldialdia. Bertan solasean izan dira kideekin. TXINTXARRI



Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek Ama Brigitarren komentuko jaiotzan eskaintza egin ostean, mojekin bildu eta solasaldi p...



Laguntzaileak Okendo plazan ibili dira, eskutitzak jasotzen. Tailerrak eta photocall-a ere izan dira. TXINTXARRI



Brigitarren komentuan egon dira hiru erregeak, herriko neska-mutilei harrera egin eta eskutitzak hartzen. TXINTXARRI



blita izan zuten. TXINTXARRI



Aterkiak eskuetan, herritar andana zegoen zain plazan. Txaloka hartu dituzte erregeak balkoira atera direnean. TXINTXARRI



Mercero plazan erregeek Jesus haurtxoari eta familiari intsentsua, mirra eta urrea eskaini zioten. TXINTXARRI



Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, ilara luzea sortu da Brigitarren komentuko kaperan. TXINTXARRI

Giro ederra areto futbol topaketan

Gabonetan ere futbolean



Eskola Kiroleko gaztetxoak, urtarrilaren lehen astean jokaturako partida batean, Michelinen. TXINTXARRI



Huracan Champions eta Prest Gaudé alebinek jokatu zuten finaletako bigarren partida. TXINTXARRI



Prest Gaudé taldekoak, kontrako areara arriskua eramaten. TXINTXARRI



Huracan Champions taldeko jokalaria bat, falta jaurtiketa batean. TXINTXARRI



Infantilen finala estua izan zen. Txintxetako taldeak (elastiko zurikoak) irabazi zuen. TXINTXARRI



Infantiletako txapeladunak, garaipena ospatzen. TXINTXARRI



Talde guztiek izan dute saritxoa: domina eta askaria. TXINTXARRI



Ikusleen artean ere zozketa egin dute. TXINTXARRI



Gaztetxo senitarteko eta lagunak harmailak bete dituzte. TXINTXARRI

Gabonetako areto futboleko topaketak hasi bezala amaitu dira, giro onean eta lagun artean. Abenduaren 26an hasi ziren lehen partidak jokatzen, eta ostegunean, urtarrilaren 4an jokatu zituzten azkenak, Michelingo frontoian. Harmailak bete dituzte gaztetxoak ikustera joandako guraso eta lagunak, eta beste urte batez, kirola eta aisia uztartuta gustora igaro dute arratsaldea kirolariek. Gainera, denok izan dute saritxoa partida amaitzerakoan: domina bat eta askari txiki bat.

Futbolari dagokionez, lehiatuak izan dira partida guztiak. Arratsaldeko lehenengoan Lagunak taldeak jokatu du Pantera Txikiak-en aurka. Lagunak-ek poltsikoratu du finala, 4-2ko markagailuarekin. Halere, emaitzak erakusten duena baina estuagoa izan da lehia. Izan ere, Pantera Txikiak taldeak erasora jo du partidaren azken unera arte, eta launa berdintzeko aukera ugari izan ditu. Azken unean, baina, behin betiko 4-2koa ezarri du Lagunak-ek.

Alebin kategorian, berriz, Huracan Champions eta Prest Gaude taldeak izan dira aurrez aurre. Lehen zatian Prest Gaude aurreratu da, kórner bateko jokaldiaren ondoren. Halere, Huracan Campions-ekoek ez dute etsi, eta berdintzea lortu bakarrik ez, markagailua irauli dute bigarren zatian.

Azkenik, infantilen kategorian Txintxetak taldea nagusitu zaio CSKA La Ropa taldeari. 3-0 aurreratu dira Txintxetak, eta bazirudien partida aise irabaziko zutela. Baina bigarren zatian CSKA-k martxa bat gehiago jarri du eta launa berdintzea lortu du. Ez du asko iraun emaitza horrek, segituan sartu baitu Txintxetak 5-4koa. Eta segundo gutxiren faltan egin dute behin behineko 6-4koa.

Eskola Kirolean eta federatutako kiroletako ligen etenalditxoa ongi baino hobeto aprobeztatu dute gaztetxoek. Kirola egiteaz gainera, lagunartean giro onean ibili dira Gabonetako asteetan. Areto futbol topaketa albo batera utzi, eta urtarrilean ohiko martxari heldu beharko diote berriro, bai kirolean eta eskolan.

Umorea, eguraldi txarrari aurre egiteko

400 pertsonak baino gehiagok aurre egin zioten euriari eta haize zakarrari, eta umore eta giro onean amaitu zuten urtea, kirola eginez. Lasterketa hutsa baino gehiago da San Silvestre Lasarte-Orian: korrikalari gehienak mozorrotuta atera ziren

Txintxarri

Proba gaztea da San Silvestre lasterketa Lasarte-Orian, baina lehen urtetik izaera bereziari eutsi dio. Lehiaketa hutsa baino gehiago baita: urtea amaitzeko mozorro eta umore festa handi bat. Eta iazko abenduaren 31n izaera hori berretsi zuen. Euriteak eta haize zakarrak ez zuen festa zapuzterik izan, 400 pertsona baino gehiagok aurre egin baitzioten eguraldi txarrari.

Egun osoko festa prestatu zuten antolatzaileek. Goizean pintxopote solidarioa egin zuten, eta lasterketaren aurretik beroketa saioa egin zuten denok batera, Lorena Garcianen eskutik.

1 zenbakidun dortsala baliatu zuten herritarrak omentzeko. Kasu honetan Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek eraman zuten zenbakia, 50. urtemuga ospatzeko. Gaizka Ormazabal eta Asier Eizagirre kideek korri egin zuten, euskal jantzi tradizionalak soinean.



Nahiz eta lurra labainkorra egon, ez zen egon ezbeharrik. TXINTXARRI

Lasterketa berezia dela erakusten du sari banaketak. Azkarrenak saritu ez ezik, mozorro originalenak eraman zituztenek ere jaso zuten aitortza. Nola ez, Kataluniako auzia present egon zen. Hain zuzen, Carles

Puigdemontez mozorrotu zen Mikel Izagirrek irabazi zuen sari nagusia. Parte hartzaile beteranoena ere omendu zuten: Luis Tapia, 84 urteko korrikalaria. Ipar martxakoek eta patinatzaileek ere osatu zuten ibilbidea.



TXINTXARRI ARTXIBOA

Babyautoren porrota A Coruñan

Babyauto Zarautz taldeak ez du urtea ongi hasi. CRAT taldearen aurkako partida jokatu du A Coruñan. Atsedendian berdinketa zegoen arren, bigarren zatian arerioak zarautzarren akatsak ederki aprobeztatu ditu 48-36 irabazteko. Rekondo anaien, Adrian Apaolazak eta David Vegak hasieratik jokatu dute partida. Larunbata honetan Eibar izango dute aurrez aurre Astin. Bestalde, Michelinen berriro ere errugbiak gozatzeko aukera izango da asteburuan. Larunbatean, Euskal Liga eta 14 urte azpiko taldeen partidak jokatuko dira, eta igandean federazioko jardunaldia izango dute bikienek.

Gomezek Kirolprokarak liga eskuratu du

Raul Gomez Margallo herritarrak Kirolprokarak Ligako lehen postuan amaitu du 2017 urtea, 1462,76 punturekin. Laugarren aldiz eskuratu du liga. Baina ez da lehen postuetan izan den herritar bakarra; Gorka Gilek hirugarren postua eskuratu du beteranoetan, Maite Salazar laugarren izan da seniorretan eta Arantxa Zapatak postu bera lortu du beterano bigarren mailan.

Lasarte-Oriako Padel txapelketa hastear

Lasarte-Oriako padel pistan IV. Padel Torneoako lehen partidak jokatuko dira asteburuan. Padelo Kirol klubak antolatzen duen lehiaketa honetan 39 bikotek parte hartuko dute. 3 maila ezberdin izango dira gizonezko lehiak; emakumeetan aldiz, bakarra. Liga modura jokatuko da eta maila igoerak eta jaitsierak ere izango dira. Partidak asteburu lehiatuko dira eta finala ekainaren 16an izango da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONAL PREFERENTEA
Ostadar SKT - Sanpedrotarra Larunbata. 17:20. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Aloña Mendi - Ostadar SKT Igandea. 16:30. Azkoagain, Oñatin.
JUBENILEN LEHENENGO MAILA IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Orereta Kafea Igandea. 14:15. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Hernani Larunbata. 12:45. Michelinen.
KADETEEN LEHENENGO MAILA IGOERA FASEA
Ostadar SKT A - Lengokoak A Igandea. 12:45. Michelinen.
KADETEEN LEHENENGO MAILA KOPA
Amara Berri - Ostadar SKT B Igandea. 13:30. Martutene, Donostian.
INFANTIL TXIKIA SAILKATZE FASEA
Ostadar SKT - Behobia Larunbata. 11:15. Michelinen.

INFANTILEN LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT B - Usurbil Larunbata. 09:45. Michelinen.
Tolosa - Ostadar SKT C Igandea. 10:00. Usabal, Tolosan.
Idiazabal - Ostadar SKT A Larunbata. 10:00. Arizkorreta, Idiazabalen.
LURRALDE MAILA IGOERA FASEA
Beti Gazte - Ostadar SKT Larunbata. 15:45. Mastegi, Lesakan.
IBERDROLA LIGA
Valencia Femenas - Reala Larunbata. 10:45. Valentzian.
2. MAILA
Athletic Club B - Pauldarrak Igandea. 10:15. Lezaman.
2. MAILA
Añorga - Eibar Igandea. 17:30. Rezola, Donostian.
ARETO-FUTBOLA
GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA
Bilkoin Legorreta - Isu Leihoak Eguzki Ostirala. 20:30. Harripila frontoia, Legorretan.

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA
Cecilia Frutadenda Eguzki - Teep Samaniego Orixe Tolosaldea Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
SENIOR GIPUZKOAKO LIGA
Teep Samaniego Orixe Tolosaldea - Trumoi Taberna Eguzki Ostirala. 20:30. Uzturpe frontoia, Tolosan.
KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA
Balardi H. Eguzki - Mondrate Dragoiak Igandea. 11:15. Kiroldegian.
SASKIBALOIA
SENIOR LEHENENGO MAILA
TAKE Aralar kirolak - Ostadar SKT Larunbata. 14:00. Usabal, Tolosan.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Mondragon Uni.C - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Iturripe, Arrasaten.
PARTIZIPAZIO KADETEAK
Zast 2002 - Ostadar SKT Larunbata. 15:15. Antoniano, Zarautzen.
INFANTIL HAUNDI PARTIZIPAZIOA
Beraun Bera Oiarso - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Don Bosco, Erreterian.

INFANTIL TXIKI PARTIZIPAZIOA
TAKE Txindoki txiki - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Usabal, Tolosan.
PILOTA
ESKUZ BANAKA LEHEN MAILA
Intza 2 - Inburre 1 Ostirala. 19:30. Michelingo pilotalekuan. Bigarren partida.
Intza 1 - Azkoitia 1 Ostirala. 19:30. Michelingo pilotalekuan. Hirugarren partida.
INFANTILAK BIGARREN MAILA
Intza 1 - Kuku Ostirala. 19:30. Michelingo pilotalekuan. Lehen partida.
Intza 2 - Mundarro Larunbata. 16:00. Michelingo pilotalekuan. Bigarren partida.
2. URTEKO ALEBINAK
Zestoa - Intza 1 Ostirala. 18:30. Atari-Soro, Aizamazabalen. Lehen partida.
Intza 2 - Zumaia Larunbata. 16:00. Michelingo pilotalekuan. Bigarren partida.

ATLETISMOA
ABSOLUTUAK
Gipuzkoako txapelketa Larunbata eta igandea. Donostiako belodromoan.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz KE - Avia Eibar Rugby Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA
Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Txingudi Larunbata. 15:30. Michelinen.
18 URTE AZPIKOA
Gernika - Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT Larunbata. 12:00. Gemikan.
14 URTE AZPIKOA
Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Eibar RT Larunbata. 14:30. Michelinen.
10 ETA 12 URTE AZPIKOA
Federazioko jardunaldia Igandea. 10:00. Michelinen.

Urtea saski eta baloi artean bukatzeko

Ostadar Saskibaloiak bosgarren aldiz antolatu zuen abendu amaieran 3x3 txapelketa. Aurten ere talde ugariak parte hartu dute, eta egun osoan partidak izan dira Maialen Chourraut kiroldegian. Urteroko zita eta inguruko erreferentzia da txapelketa

Txintxarri

Urteroko hitzordu sailhestezina bihurtzeaz gainera, inguruko erreferentzia ere bada. Ostadar Saskibaloiak urte amaieran antolatu du bosgarrenez 3x3 saskibaloi txapelketa, eta beste urte batez arrakastatsua izan da ekimena. Talde ugari eta kategoria guztietakoak animatu ziren abenduaren 30ean txapelketan parte hartzera; baloi eta lagun artean amaitu zuten urtea, Maialen Chourraut kiroldegian. Goizetik iluntzera arte etengabeak izan ziren saskibaloi kantxan baloi eta zapatila soinuak.

Benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutilek gozatu

zuten saskibaloiak goizean. 09:30ean hasi, eta bazkalordura arte aritu ziren partidak jokatu eta jokatu, kantxaren ezkerreko aldean. Eskuinaldean, berriz, kirol egokituko gazteek hainbat jokotan parte hartu zuten.

Finalak

Eguerdia aldera jokatu zituzten benjamin eta alebin nesken finalak. Zarautz Surfistak taldeak 3-2 irabazi zion Macabi de Levantar hirukoteari, benjaminetan; alebinetan, berriz, Las exterminadoras nagusitu zen, 2007ko Zarautzarrak taldeari 8-0 irabazita. Infantil kategoriako nesketan L-Mak taldeak irabazi zion Kalimak-i, 9-3. Mutiletan,

berri, kopa altxa zuen Lonzo Ballak taldeak. Luberrirekin neurtu zituzten indarrak, eta 10-3 irabazi zioten.

Junior eta senior mailako taldeek hartu zuten gaztetxoek erreleboa, arratsaldean. Juniorretan hauek izan ziren emaitzak: Apa! 5- Tripletz 4; Big Ballers 14- Tres al cuadrado 4. Seniorretan, berriz, honako hauek: Pompa Pamoxa 6- Skycrapers 8; eta Lebron Cagon 4.0 7- Ternera Loka 8.

Aurtengo edizioan 57 taldek hartu dute parte kategoria guztietan; oso antzeko kopurua izan zen iazkoa ere. Gustura daude antolatzaileak bosgarren edizioak izandako arrakastarekin.



Gabonetako etenaldia aprobetxatu zuten jokalariek 3x3-an parte hartzeko. TXINTXARRI



Gaztetxoek ere izan zuten txapelketaz gozatzeko aukera. TXINTXARRI


AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasangarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

bidegi.eus



Martin ahizpek lehiatu zuten bizkar proban Ordiziako sarian. TXINTXARRI

Buruntzaldea IKTkoak fin ibili dira Ordiziako sarian

Lasarte-Oriako igeriketa taldeko lau kirolari lehiatu ziren urte amaieran Ordiziako nazioarteko txapelketan, eta markak hautsita itzuli ziren etxera. Atsedean gutxi dute igerilariak. Euskadiko Selekzioak deituta lehiatuko dute hurrengo asteetan

Txintxarri

Denboraldiko proba garrantzitsua da Eguberrietako Nazioarteko Txapelketa, Ordiziako Majori kiroldegian abenduaren 29an jokatu zutena. Buruntzaldea IKTko lau ordezkari izan ziren bertan: Leire Martin, Ainhoa Martin, Haitz Mitxelena eta Nahia Zudaire. Guztiak sendo ibili ziren lehian, Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu duenez. Horren adierazgarri dira lortutako markak: bi euskadiko errekor, taldeko bost, eta zazpi marka pertsonal ondo zituzten Lasarte-Oriako igerilariak.

Goizean sailkapen probak izan zituzten. Haitz Mitxelenak 50 eta 100 metro tximeleta probatan parte hartu zuen. "Bere onenetik gertu aritu da, eta bere prestakuntzaren bidean sentazio onak lortu ditu," adierazi du Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak.

Leire Martinek, berriz, finalerako sailkapena lortu zuen

lehiatutako hiru probatan: 50 eta 100 metro bizkar eta 200 metro estiloetan. Bizkar estiloko bi probatan, gainera, Euskadiko errekorrak hautsi zituen.

Sailkapen probak

Ainhoa Martin Euskal Selekzioarekin aritu zen lehian. Ainhoa ahizparen hiru proba berberan aritu zen, baina ez zuen finalean sartzerik lortu, nahiz eta marka pertsonalak ondu. Honela azaldu du Apeztegia entrenatzaileak: "Bular erako bi markak benetan bikainak diren arren, edizio honetan emakumezkoen bular estiloko probatoko maila benetan altua izan da. Horrek Ainhoaren lana benetan oso leku onean uzten du".

Nahia Zudairek sailkapen proba ezin hobea egin zuen. Igeriketa egokituko 50 metro librean bere marka bi segundu eta erdian hobetu era finalerako nagusitasuna nabarmen utzi zuen.

Arratsaldeko finaletan, Leire Martinek bosgarren postuan amaitu zuen 50 metro bizkar proba, eta 100 metro bizkar eta 200 metro estilo probatan laugarren izan zen. Horrez gainera, marka ugari hautsi zituen. Bestalde, Zudairek bere proban nagusitu zen, nahiz eta goizean baino denbora okerragoa egin.

Selekzionako deialdiak

Atsedenerako tarte gutxi izango dute Buruntzaldea IKTko igerilariak, Euskadiko Selekzioak deitu baititu hurrengo asteetan lehiatzeko. Zudairek Valentzian lehiatuko du urtarrilaren 20an, Gazteen mailako Igeriketa Egokituko Espainiako AXA Txapelketan. Martin ahizpak eta Paula Sevillanok, berriz, Espainiako txapelketan ordezkatu dute Euskadi, otsailaren 17an eta 18an. Azkenik, Sevillanok eta Ainhoa Martinek Euskadiko Selekzioarekin lehiatuko dute Camargoko (Kantabria, Espainia) nazioarteko txapelketan.

Eñaut Buiza, txapeldun Euskal Selekzioarekin

Eñaut Buiza Lasarte-Oriako saskibaloi jokalaria Espainiako txapelketa irabazi du Euskadik Selekzioarekin, Valladoliden jokaturako txapelketan. Preferente mailan (bigarren maila) lortu du txapela Euskadik, Kantabriari finalean irabazita 92-76. Gainerako partida guztiak irabazi zituen EAeko selekzioak.

Baina Buiza ez da txapelketan jokatu duen lasarteoriatar bakarra. Kadete mutiletan Aitor Anabitartek jokatu du, Especial mailan (lehenengo mailan). Zazpigarren postuan geratu da azkenean selekzioa. Taldekako fasean Kataluniako selekzioari irabazi zioten Euskadiko kadeteek (66-63), baina gero ezin izan zuten aurrera egin.

Judith Navarro kadetea Euskadiko selekzioko partidetakoa ohikoa izaten da, baina deialditik kanpo geratu zen honetan.

Ostadarreko Erregional mailakoak, igoera fasera

Lurralde mailako Ostadarreko futbolariak liga amaitu dute, ongi amaitu gainera. Zumaia-kori 4-0 irabazita hirugarren sailkatu dira, eta igoera fasea jokatuko dute.

Michelingo zelaian jokatu zuten joan den igandean. Pardidaren garrantziaren jakitun ziren Ostadarreko

neskak, eta partida hasieratik bukaerara arte kontrolatu zuten. Candela Barriok egin zuen lehenengo gola 35. minutuan. Bigarren zatian ere aukerak aprobetxatu zituzten: Nahia Mendiablen 57. minutuan erabakita utzi du partida. Eta hortik aurrera hasi da festa. Hamar minutu geroago Mendiablen bigarren gola sartu du, eta azkenik, Uxue Zalduak itxi du partida 85. minutuan gola sartuta.



TXINTXARRI

Hirugarren Mailako txapeldun

Bigarren mailako txartela ziurtatuta izan arren, Hirugarren Mailako finala irabazteko gose zeuden Haritz Urkia eta Aritz Solano, txapela lortzeko irrikitan. Eta Alegian jokaturako finalean ez zuten hutsik egin, Intxaurre mendean hartu baituzten 18-22. Honenbestez, Intzak talde bana izango Lehenengo Mailan eta Bigarren Mailan. Asteburu honetan hasiko dute Udaberriko Txapelketa.

ZORION AGURRAK




Saioa
Ondo pasa zure bederatzigarren urtebetetzean, zure gurasoan eta lker anaiaren partetik.



Erika
Zorionak ahizpatxo, munduko hoberena opa dizugu zure hilobek, seme-alabek eta nik, zure ahizpak.



Aizpea
Zorionak Aizpea, honez gero Jesukriston adina! (Espero dugu berea baino dexente hobe izatea). Eta Urte berri on baita ere! Muxu bat!



Sara
Zorionak aitona, amona eta familia guztiaren partez! Muxu asko!



Maddi
Zorionak sorgina!! Ahaztuko ginela uste zenuen? Ondo ospatu zure eguna asteburuan!!! Muxu pottoloa Ttakuneko lankideen partetik.



Noelia
Zorionak printzesa. Egun berezi honetan, zure guraso Samy eta Evelynek, eta zure anaixo Efrenek zoriondu nahi zaitugu. Ongi pasa dezazula, asko maite zaitugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 12	GIL
Larunbata, 13	URBISTONDO
Igandea, 14	URBISTONDO
Astelehena, 15	GANDARIAS-URIBE
Asteartea, 16	ORUE
Asteazkena, 17	DE MIGUEL
Osteguna, 18	LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
 Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
 Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Bilbora autobusak
 Larunbateko manifestaziorako autobusak aterako dira Tajamarretik. Tiketak (10 euro) Artizar-Tiburtzión, Gure Etxean, Iargin eta Trumoién.

Erketzen Inauterietako konpartsa

Erketz EDTk otsailaren 10ean Inauterietako desfilean parte hartuko du eta horretarako konpartsa prestatzen ari da. 50. urteurreneko lehen ekintza izango da eta elkarteak herritarrek animatu nahi dituzten dantza egin eta egun pasa ederra egitera.

Guztia prest izateko aurre lanketa behar da. Horregatik, urtarrilaren 13an, larunbatean, lehen entsegua egingo dute Landaberri-Garaikoetxea ikastetxean, goizeko 11:00etan. Ondoren, bilera bat egingo dute konpartsaaren eta egunaren nondik norakoak azaltzeko.

Intza Kirol Elkartearen bazkide izateko izen emateak
 Gerturatzten ari da Intza Kirol Elkartearen bazkideen Ohiko eta Ez Ohiko Batzarra, eta zuzendaritza batzordeak adierazi du ireki dela

bazkidegaien izena emateko epea. Elkartearen dagoen irakarki taulan daude eskaera egiteko inprimakiak, Kale Nagusia 8 helbidean. Inprimaki horiek bete eta elkartearen bertan aurkeztu daitezke. Bazkide berriek izena emateko epea urtarrilaren 15ean amaituko da.

Odol-ateratzea
 Hilabeteko azken astelehenean, urtarrilaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitetzeko, odola ordezkatzeko da eta odol falta dago!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzea.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
 KIROLDEGIA: 943 376 182
 MANUEL LEKUNEA KULTUR ETXEA: 943 376 181
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
 KIUB: 943 361 605
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
 MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
 DYA: 943 464 622
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953
 UDALTZAINAK: 943 362 442
 ERTZAINAK: 943 538 840
 SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

			1		7	6	9	
	5	9		4			1	
1				3			8	4
	7		4	1				5
6					8	2	3	
8			3					9
	2			8	4	9		
4	9				3		7	8
		8		7				6

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Ainhoa taberna alokatzen da Lasarte-Orian. Kokaleku ona. 691 646 204.

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659021945

LANA

ESKAERA

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea interna gisa lana egiteko prest. 642 59 5146

Garbiketa lanak edota adineko pertsonen

zainduko nituzke. Astelehenetik ostiralera eta asteburuetan lan egiteko prest. 690146067

Lan bila nabil (arratsaldetan). Jostuna naiz, baina etxeko zerbitzuan ere esperientzia badut. 689103340

Pertsona helduak zainduko nituzke orduka, egun osoz, gauez edo asteburuetan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 671763558

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo

persona edadetuak zaintzeko. Egun osoz edo orduka. Telefonoa: 695 652 161

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:

Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan


JAIOTAKOAK

Irati Magdaleno Murguiondo. Urtarrilaren 3an.
Julen Retegui Benito. Abenduaren 31an.
Judith Aguirre Simon. Abenduaren 21an.

HILDAKOAK

Antonio Fernández Garro. Urtarrilaren 9an.
Florentina Eleno Martin. Urtarrilaren 3an.
Maritxu Odriozola Astiazaran. Urtarrilaren 3an.
Manuel Guerrero Tutor. Abenduaren 31an.
M^a Victoria Martiarena Navarro. Abenduaren 30an.
Juan Fernández Pérez. Abenduaren 28an.
Maitere Arrizabalaga Odriozola. Abenduaren 25an.
Mari Carmen Micheltoarena Lasaga. Abenduaren 21an.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzaileak

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranbxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administraria

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 12

ASTIGARRAGA Kontzertua
Oskar Estangak eta Jon Barberenak *Po hesietatik* ikuskizun berria eskainiko dute. Musika eta bertsoak uztartzen dituen emanaldia da. Doakoa.
Gaztelekua, 19:00etan

ANDOAIN Erakusketa
Naira Delgado Perez margolariaren *Nire terapia: artea* erakusketa irekiko da. Otsailaren 17ra arte izango da ikusgai.
Bastero kulturunea, 19:00etan

ANDOAIN Antzerkia
Javier Liñera aktoreak *Barro Rojo* antzezlan eskainiko du. Lanak XX. Max Sarietako Egile Errebelazio ataleko hautagaitza du. Indifest 2016ko Ikuskizun Onenaren Saria eta EHGM 2016 Urrezko Hiruki

Saria eskuratu ditu. Sarrera 12 euro.
Bastero kulturunea, 21:30ean

LARUNBATA 13

HERNANI Txotx denboraldia
Txotx denboraldiaren irekiera izango da. Zaporeak proiektuak egingo du lehen txotxa.
Gudarien plaza, 11:30ean

IGANDEA 14

ASTIGARRAGA Antzerkia
Txalo produkzioak taldearen eskutik *Mendi tontorrean* lana ikusi ahaliko da. Sarrera hurrek 2,5 euro eta helduek 5 euro.
Kultur etxea, 17:00etan

ASTELEHENA 15

ASTIGARRAGA Sagardo Berriaren eguna
XXV. Sagardo Berriaren Eguna 2018

ospatuko da. Horretarako hainbat ekintza antolatuta dira:
12:00etan, Uzta berria aurkeztu eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango dute, Sagardoetxean. Ostein sagarrondo bat landatuko da.
13:45ean, "Gure Sagardo Berria" oihu eginda lehen kupela irekiko du Alberto Iñurategik, eta honekin batera, 2018ko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Gurutzeta sagardotegian izango da ekitaldia.
Astigarraga, 12:00etatik aurrera

ASTEARTEA 16

HERNANI Literatur solasaldia
Ane Mayozen laguntzarekin Urt Zubiaurreren *Izenik gabeko lurrak* liburua aztertuko da.
Udal liburutegia, 19:30ean

OSTEGUNA 18

HERNANI Ipuin kontalaria
Apaxak bi ipuin kontaketa egingo ditu. Bata 17:30ean 3 eta 4 urteko haurrei zuzendua eta bestea 18:00etan 5 eta 7 urte arteko gaztetxoentzat.
Biteri kultur etxea, 17:30etik aurrera

ASTIGARRAGA Kontzertua
Musika Eskolako gitarra elektrikoko ikasleen eta lau talde modernoek emanaldiaz gozatu ahaliko da.
Norberto Amadoz musika eskola, 19:00etan

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Danborrada
San Sebastian bezpera dela eta, Lasarte-Oriako ikastetxeetan danbor hotsak izango dira nagusi:
15:00etan, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko HHko ikasleen saioa Zumaburu plazan.
15:40ean, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LHko ikasleen saioa Sasoeta eraikineko.
16:00etan, Landaberri ikastolako HHko ikasleen saioa Landaberri-Garaikoetxea eraikinean.
16:00etan, Landaberri ikastolako LHko ikasleen saioa Zubietako eraikinean.
Eguraldi txarra eginez gero, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko saioetara ezingo dira gurasoak sartu.
Ikastetxeak, 15:00etatik aurrera



Josten trebatu nahi duzu?

Titare joskintza tailerra, giro onean eta euskaraz!

Noiz: ostegunero 15:30etik 17:30era, emakumeen zentroan (ekaina bitarte).
Kostua: 1€ saioko.
Informazioa eta izen-ematea: Ttakunen, kultura@ttakun.eus edota 943 37 14 48 zenbakian.



ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKIJONA

Mother (JBGA)
Ostirala: 22:00.

Ferdinand
Igandea: 17:00.

Asesinato en el Orient Express
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Star Wars: Los últimos Jedi

Ostirala: 16:05, 19:05, 22:05.
Larunbata: 16:05, 19:05, 22:05.
Igandea: 16:05, 19:05, 22:05.

Coco
Ostirala: 16:00, 18:25.
Larunbata: 16:00, 18:25.

Igandea: 16:00, 18:25.

El Gran Showman
Ostirala: 20:20, 22:45, 00:55.
Larunbata: 20:20, 22:45, 00:55.
Igandea: 20:20, 22:45.

El instante más oscuro

Ostirala: 16:30, 19:10, 22:00, 00:40.
Larunbata: 16:30, 19:10, 22:00, 00:40.
Igandea: 16:30, 19:10, 22:00.

Ferdinand
Ostirala: 15:45, 18:05.
Larunbata: 15:45, 18:05.
Igandea: 15:45, 18:05.

Insidious: La última llave
Ostirala: 18:10, 20:35, 22:30, 01:00.
Larunbata: 18:10, 20:35, 22:30, 01:00.
Igandea: 18:10, 20:35, 22:30.

Jumanji: Bienvenidos a la jungla

Ostirala: 15:45, 18:15, 22:35, 00:00.
Larunbata: 15:45, 18:15, 22:35, 00:00.
Igandea: 15:45, 18:15, 22:35.

Molly's Game
Ostirala: 21:00.
Larunbata: 21:00.
Igandea: 21:00.

Perfectos desconocidos
Ostirala: 15:50,

18:00, 20:25, 22:45, 00:55.
Larunbata: 15:50, 18:00, 20:25, 22:45, 00:55.
Igandea: 15:50, 18:00, 20:25, 22:45.

Que baje Dios y lo vea
Ostirala: 16:20, 20:40.
Larunbata: 16:20, 20:40.
Igandea: 16:20, 20:40.

Tres anuncios en las afueras
Ostirala: 15:50, 18:15, 20:10, 22:35, 00:40.
Larunbata: 15:50, 18:15, 20:10, 22:35, 00:40.
Igandea: 15:50, 18:15, 20:10, 22:35.



LABURPENA

Mother (JBGA)

Zuzendaria eta gidioa: Darren Aronofsky. **Herr.:** AEB (2017).
Ekoipezna: Protozoa Picture (Darren Aronofsky, Scott Franklin, Ari Handel).
Argazkia: Matthew Libatique. **Aktoreak:** Jennifer Lawrence, Javier Bardem, Michelle Pfeiffer, Ed Harris. **Iraupena:** 122 minutu.

Bikote harremanak eta eragileak

Baso baten erdian, suak suntsitutako etxetar viktoriar batean bikote bat bizi da.

Etxea egokitzen igaro ditu egunak Jennifer Lawrence aktoreak gorputzutako emazteak. Hura baino hogeit bat urte zaharragoa den idazlea (Javier Bardem), aldiz, publikoaren arreta berreskuratzen lagunduko dion maisulana idazten ariko da, azken aldiaren ezer gutxi sortzeko gai izan bada ere.

Gau batean, sendagilea dela dioen gizonezko misteriozko batek joko du etxeko atea, nahastuta, aterpe bila omen dabil; eta gizonak gaua bertan igarotzera

gonbidatuko du, aspaldiko lagunak balira bezala. Bisita honek bikotearen bizitza hankaz gora jarriko du.

Maitasunari, debozioari eta sakrifizioari buruzko thriller psikologikoa da *Mother!* filma.

Veneziako zinema-jaialdian estreinatu zen. Ez zuen saririk irabazi baina ikusleak eta zinema adituak zur eta lur utzi zituen. Esate baterako, batzuk filma amaitu gabe zinema gelatik atera ziren. Laudorio eta kritika ugari jaso zituen.

Jatorrizko bertsoaren eskainiko da filma eta gaztelarazko azpitituluzko izango ditu.

PLAZAN BAZAN



tortilla

Zein da Pelloziriren itzal zuzena?

SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.


B			I
L		B	
	A		



ZOPA ala POZA?

A			Z
		P	
	Z		
O			

BLAI ala BILA?



ZAPI ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
			Z

Soluzioak: www.plazanbazan.eu

Egilea: Garbine Ubeda

KOMIKIA



Gure betaurreko guztiak 2018ko bildumakoak dira

MERKE ALDIA

2 mó betaurreko graduatu

erreflexuen aurkako leiarrekini

79€

aurretiko prezioa: 99€

www.multiópticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan